

Azken deia Abidjanetik

BOLI KOSTAKO GATAZKA. Gobernuaren eta matxinoen arteko bake negoziazioak hausteko eta erabateko gerra nagusitzeko zorian da Saharaz hegoaldeko hirugarren ekonomia indartsuena duen herrialdea



Edu Lartzainguren | DONOSTIA

Azken deia da hau. Ezinezkoa izango da, beharbada, beste ebakuziorik egin geroan, bitarteko zibil edo militarren bidez», zen irakurtzeko Erresuma Batuak Boli Kostan duen enbaxadak astelehen gauean igorritako mezuan. Mendebaldeko beste hainbat estatuek eginiko deiei gehitu zitzaizen Londreskoa, Afrikako herrialdean erabateko gerra zibila gertatzeko aukerak gero eta handiagoak dirudien honetan. Gobernuaren eta talde matxino nagusiaren arteko su-etena eta bake elkarrizketak porrot egiteko zorian dira, mintzakideak mahaia uzteko aitzakia baten bila dabiltzala.

«Matxinada zapaldu behar dugu. Ez dugu haiekin negoziatuko, azpian hartuko ditugu matxinoak», esan zuen astelehenean Charles Ble Goude boterearen inguruko gazte talde bateko presidentea. Bertin Kadet ministroak 20 eta 26 urte arteko bolikostarrei dei egin zien armadan izena emateko, matxinoei aurre egitearren. Deioi erantzunez, milaka gazte bildu ziren atzo Armadak Abidjanen dituen kasernen aurrean, uniforme eske.

Herrialdearen iparraldea irailaz geroztik kontrolpean duen Boli Kostako Mugimendu Aibertzailea (MPCI) talde matxinoa bitartean «erasoaldia berriz abiatzeko prest» agertu zen, joan zen astean Boli Kostako mendebaldean azaroaren 29an eginiko sarraskia argitu ezean. Lekukoaren arabera, Gobernuaren soldaduek 120 gizon sarraskitu zituzten Monoko-Zohi herrixkan, gehienak Afrika mendebaldeko etorkinak. Gertaera salatzeke exijitu zion atzo Guillaume Soro MPCi-ko buruak Gobernu eta matxinoen arteko negoziazioetan dabilzan artekariei.

Erakunde katoliko batek, bestalde, beste hobi komun baten berri eman zuen larunbatean:



GEORGES GOBET / EPA

Boli Kostako Gobernuaren kontrako matxino bat kohete jaurtigailu batekin, herrialdeko iparraldean.

KRONOLOGIA

Hamarkada arriskutsua

Boli Kostako egoera 90ko hamarkadan okertu da bereziki. Hona hemen urte horietan izan diren gertaera garrantzitsuenak:

- 1990.** Oposizioko alderdiak legeztatu zituzten. Houphouët-Boigny bozak irabazi zituen. Hura hil eta Konan Bedie ordezkatu zuen.
- 1999.** Militarrek Bedie agintetik kendu eta Robert Guei jarri zuen boterean.
- 2000KO MAIATZA.** Alassane Ouattara Boli Kostako buruzagi kristauaren aldeko ministroak gobernutik kendu zituzten.

Bouaketik gertuko hobian ustez matxinoek hildako 86 soldaduen gorpuak daude, taldearen arabera.

Hiru hilabete aurrez-aurre

Irailaren 19an piztu zen Boli Kostako azken krisialdi armatua. Orduan 750 soldadu matxinatu ziren herrialde osoan eta Armadaren egoitzak hartzen saiatu. Gobernuak Armadatik kanpo utzi zituela argudiatu zuten Abidjanen menpean hartu ezinda, mendebaldean eta iparraldean garaitu ziren matxinoek.

Altxamenduak halere erro sakonak ditu herrialdean dagoen

banaketa politikoa eta erlijiosoa. Banaketa azken hiru urteotan izaniko hainbat estatu kolpe eta herritarren matxinadetan azaleratu izan da, 1999ko gabon bezperan militarrek Henri Konan Bedie presidentearen gobernu desegin zutenetik.

2000. urteko hauteskundeek haustura ekarri zuten, agintean zen Robert Guei jeneralak bere burua bozen irabazletzat jo zuean. Harez geroztik, borroka nagusitu zen Guei eta Laurent Gbagbo zein Alassane Ouattara hautagaien artean. Guei irailean hil zuten matxinadaren ondorengo borroketan.

Gbagbo egungo presidentea

2000KO EKAINA. Auzitegi Gorenak bozetara aurkeztea debekatu zion Ouattarari haren bolikostartasuna «zalantzakoa» zelako.

2000KO URRIA. Gueik bozak irabazi zituen baina herritarren matxinatu ziren. Laurent Gbagbo presidente aukeratu zuten. Bozetara aurkezterik izan ez zuen Ouattararen aldekoak kalera irten ziren. 170 lagun hil ziren istiluetan.

2000KO ABENDUA. Legebiltzarreko bozak boikotatu zituzten Ouattararen jarraitzaileek. Gbagbo eta Ouattara elkartu ziren berradiskidetze nazionala bultzatzeko.

2002KO IRAILA. Guei jeneral ohia hil zen estatu kolpe saioan. Laurent Gbagbok nazioartekoaren laguntza eskatu zuen. Frantziak soldaduak bidali zituen kolonia ohira.

sostengatzen duten gehienak hegoaldeko kristauak dira, eta Afrikako mendebaldeko etorkinei eraso izan diete, matxinoen aldekoak izatea leporatuta. Oposizioko buruzagi Ouattarak iparraldeko musulmanak ditu, batez ere, jarraitzaile.

Frantziaren interesak

Boli Kostaren independentziaz Abidjanen bere interesen aldeko gobernu izaten ahalegin du izan da Paris. Interes ekonomiko garrantzitsuak dituzte frantziarrek Saharaz hegoaldeko Afrikako hirugarren ekonomiarik indartsuen eta munduko kakao ekoizlerik handienean.

PARISEN ITZALA

Kontuz jokatzera erabaki du Frantziak, 1994an bere aliatuek Ruandan egin zuten genozidioa berriz gertatzearen beldur

Parisek Gbagboren gobernuaren sostengatzen du eta Boli Kostan gorde izan ohi dituen tropak indartu ditu azken asteotan, bertan bizi diren 20.000 frantziarren segurtasuna bermatzeko, ofizialki. Frantziako 600 soldadua gobernu tropak laguntzen ari dira, berriz, matxinoen aurka. Halere, kontu handiz jokatzera erabaki du Frantziak oraingo honetan, 1994. urtean Parisen aliatuek Ruandan egin zuten genozidioa berriz gertatzearen beldur.

Belgikako enbaxadak ere Boli Kostatik ateratzeko azken deia egin zuten atzo bere herritarrei, Abidjanen Gbagboren aldeko milaka gazte gogotsu Armadak behar dituen 3.000 boluntarioetako bat bilakatzeko ahalegin ustela egiten zuten bitartean. Armen deiaren berotasunean, ez zuten aditu nahi izan izena emateko epea hilaren 12an hasiko zela. «Ostegunean itzultzeko» esan zuten Armadako eledunak.